

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Hasierako onespina ematea Lapuebla de Labarcako arau subsidiarioen aldaketa puntualari, 2-414 partzelaren zati bat substratu hauskorren gaineko erabilera mugatuko nekazaritza zona (Z7) moduan sailkatzeko

Udalbatzak, 2018ko azaroaren 15ean egindako ohiko bilkuran, ondokoa erabaki zuen:

1. Hasierako onespina ematea udal planeamenduko ASen aldaketa puntualari, Ercoro SCK eskatuta izapidetutakoari eta Luis M. Murua Cenea arkitektoak idatzitakoari, 2-414 partzelaren zati bat Z-7 (substratu hauskorren gaineko erabilera mugatuko nekazaritza zona) sailkatzeko, 3-454, 508 eta 392 partzelen zati bat Z3 (substratu hauskorrean leheneratu beharreko baso zona), eta Z7ra aldatuko den 2-414 partzelaren zatiari naturguneen sistema orokorraren sailkapena kentzeko.

2. Espedientea jendaurrean jartzea ALHAOn eta lurraldean zabalduen dagoen edo zirkulazio gehien duen egunkarian argitaratuta, hilabetez azkenengoz argitaratzen denetik aurrera.

Espedientea Lapuebla de Labarca (Araba) Plano plazako 9an dauden udal bulegoetan egongo da ikusgai, lehen adierazitako epean.

Lapuebla de Labarca, 2018ko azaroaren 16a

Alkatea

MAIDER MURILLOTREVIÑO